

Atilio Boron

XXI. mendeko sozialismoaz

Politologo ezkertiarra Euskal Herrian izango da GITE eta ASKE elkarteek gonbidatuta. Atilio Boronek (Buenos Aires, 1943) dio garapenaz hitz egiteko sozialismoaz hitz egin behar dela. Hiru argitaletxeak XXI. mendeko sozialismoari buruzko bere lana berrargitaratu du.

URKO APAOLAZA

BERE BLOGA begiratzuz gero, agertzen den lehenengo irudia Fidel Castroekin egindakoa da. Komandante mitikoarekin egindako azken elkarriketa-liburua kuttunen artean du, antza, Atilio Boronek. Harvard-eko unibertsitatean ikasia, politologo argentinarra erreferentziazko pentsalaria da Hego Amerikako ezkertiarren artean, eta Euskal Herrian izango da aste honetatik aurrera hainbat hitzaldi emateko.

Atilio Boron gaztetandik sartu zen klase borroken mugimenduetan, Txilen batez ere. Gero, 70eko hamarkadan Harvard-eko doktoradutza bukatzean exilioan geratu behar izan zuen, diktadurek beharturik; aharik eta urte batzuk geroago Argentinara itzuli zen arte. Ordutik herrialde hartako ikerketa eta unibertsitate munduari loturik egon da. Hamarnaka liburu eta artikulu idatzi ditu eta berrikitan Kubako Gobernuak ematen duen UNESCOren Jose Martí nazioarteko saria jaso du: “Krisi larri baten erdian gaude (...) Midas erregea ukitzen zuen guztia urte bihurtu eta dohain horren biktima bihurtzen bazen, kapitalismoak, ukitzen duen guztia bihurtzen du merkantzia, eli-



kagaietatik hasi eta giza espirituaren manifestazio gorenetaraino, autodestruktzioarako karrera ero horretan” esan zuen Boronek saria jasotzeko hitzaldian. Kapitalismoaren alternatiben inguruan sakon hausnartu du Boronek eta “XXI. mendeko sozialismoa” kontzeptuan teorizatu duen pentsalari nagusienetakoa da. Hain zuzen, Hiru argitaletxeak bere *Socialismo siglo XXI. ¿Hay vida después del neoliberalismo?* (Ba al dago bizitzarik neoliberalismoa eta gero?) liburua berrargitaratu du.

Schweinitz versus Rostow

Liburu horretan, Boronek dio azpi-garapenetik garapen kapitalistara pasatu den herri bakarra dagoela: Hego Korea. Eta hori lortu zuela FMIren eta Mundu Bankuaren aholkuak ez zituelako segitu. Horrela, bere ustez Hego Amerikako hainbat herritan urte askoan hazkunde ekonomikoa izan zen arren, inoiz ez ziren garapenera iritsi, eta Schweinitz-i jarraitzen dio esateko garapen kapitalista XX. mendean itxi zen bidea dela. Horren harira, Rostow-en ekonomiaren hazkundearen ideiek –garapena ez dela lortzen erabaki politikoek ekonomia oztokatzen dutelako– porrot egin dutela baieztatzen du Boronek liburuan, eta sozialismoa berpentsatzeko gakoak ematen ditu: “Ez dago eredurik imitatzeke –dio iraganeko erreza sobietikoak gogoan– (...) sozialismoak Latinamerikan ezin du kopia bat izan, baizik eta gure herrien asmakizun heroikoa”. Bestalde, kapitalismoaren alternatiba aurrera eramateko oinarritzko bide-orria finkatzen du lan horretan argentinarrak, eta eztabaidarako apunteak ere plazaratzen ditu azkeneko partean. ■

Michel Collon idazle eta kazetaria ere hitzaldietan izango da

GITE gizarte ikerketarako taldeak Bilbon egingo ditu hitzaldiak, aste honetan Foru Artxiboan (ikusi gite-ipesbilbo.blogspot.com), eta ASKEk (Alfonso Sastre Kultur Elkartea) datorren astean Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean (ikusi www.aske.es). Hiltzadietan, Atilio Boron politologoaz gain, Michel Collon idazle eta kazetariak ere hitz egingo du. Collon kazetari belgiarra aditua da munduko hainbat gatazketan, eta besteak beste, hedabideek Yugoslavia edota Iraken emandako informazioen inguruan egindako kritikek egin dute ezagun.

TopASKEtak: amaiera “utopiari” buruzko zikloari

Aurtengo jardunaldiak ASKEk kolofoia jarriko dio Utopiaren inguruan azken urteetan egindako gogoetei. Besteak beste Kubako parlamentuko Ricardo Alarcón edota Venezuelako Kultura Ministerioko kabinete buru Hector Soto izan dira gurekin (ikusi azken honi ARGIAK eginiko elkarriketa <http://ttiki.com/7726> helbidean).

Aurtengo TopASKEtetan, Atilio Boron eta Michel Collonez gain, hizlari izango dira Alfonso Sastre, Joxe Azurmendi, Nekane Jurado eta Carlo Frabetti.